



Urteko Ohiko Batzar Nagusia
2023-02-27

ORERETA IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO 2023 URTEKO OHIKO BATZAR NAGUSIAREN AKTA

2023ko otsailaren 27an, 18:30ean, hirugarren deialdian, Linoko egoitzan (Santa Klara kalea, 7) egindako bileraren akta.

Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteak 2023ko otsailaren 13an egin zuen Urteko Ohiko Batzar Nagusirako deialdia, ohiko bideak erabiliz, iragarki taulan eta webgunean argitaraziz.

Kooperatiba Elkarteko lehendakari Itziar Navarro Pikabea andreak Urteko Ohiko Batzar Nagusira deitu zituen bazkideak, 17:30ean lehen deialdian, 18:00etan bigarrenen eta 18:30ean hirugarren eta azken deialdian.

GAI-ORDENA

1. Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena.
2. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren berrespena.
3. Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena.
4. Kilometroak 23 urteko ekintza planaren aurkezpena.
5. Hezkuntza ereduaren inguruko proposamena.
6. 2021-2022 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, horrela badagokio. Emaizten aplikazioa.
7. Tarifak berrikusteko proposamena eta, hala badagokio, onarpena.
8. Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kide berrien onarpena.
9. Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia.
10. Galde-eskaerak.

OHARRAK:

1. *Bazkide guztiek dute Ikastolaren egoitzan eskuragarri (edo dohain helaraztea eskatzeko aukera) 2021-22 ekitaldiko kontuen txostena.*
2. *Bazkideek soilik parte hartu ahal izango dute Batzar Nagusian.*
3. *Parte hartu ahal izateko alde aurretik izen-ematea eskatuko da esteka honetan.*
4. *Batzarrera sartzeko, derrigorrezkoa izango da identifikazio-dokumenturen bat aurkeztea.*
5. *Estatutuen 24.3 artikulua araututakoaren arabera (legearekin bat etorritik), bazkide bat bere eta beste bi bazkideren ordezkari izango da, gehienez ere.*

Deialdiari erantzunez, guztira 87 bazkidek hartu dute parte Batzarrean: erabiltzaileak 49 (bertaratuak 41 eta delegatuak 8); laguntzaileak 38 (bertaratuak 27 eta delegatuak 11). Ikastolak 1.337 bazkide ditu eta beraz bazkideen %6,5 hartu dute parte.

1.- Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena.

Itziar Navarro Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak hartu du hitza eta ongietorria egin die bertaratuak guztiei. Batzarra 2021-2022 ikasturtean gertatutako berri eman eta hurrengo urteetako asmoak zein diren azaltzeko izango da. Ikasturte hau berezia da ikastolarentzat, 60. urteurrena betetzen duelako eta Kilometroak jaiaren urtea izango delako.

Batzarraren gai-ordena aurkeztuta, aurtengo Batzarreko akta onesteko proposatu diren bi bazkideen izenak eman ditu: Iraitz Burlada eta Leire Oliveri. Batzarrak ontzat eman du aho batez bi bazkide horien izendapena, akta sinatzeko.

2.- Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostena.

Bazkide guztiek izan dute akta eskuragarri, deialdia egin ostean. Akta hori Eneko Mujikak eta Ekaitz Auzmendik onartu zuten, bazkideen izenean, lehendakariarekin eta idazkariarekin batera.

3.- Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena.

Egoitz Verdugo zuzendari pedagogikoak egin du aurkezpena. Aipatu du ikaslea dela hezkuntza-proiektuaren giltzarria, eta eraldaketa pedagogiko guztiak hori kontuan hartuta egiten direla.

Ondoren, etapaz etapa, azken ikasturteko ildo nagusiak zein diren azaldu du. Besteak beste, honako hauek aipatu ditu:

- Etapa guztietan landu da ebaluazio txostenen eredua, ebaluazio hezigarrian oinarrituta.
- Baso eskola: HHkoek egun osoko jardunarekin jarraitzen dute. Ikasgelan eta baso eskolan egiten denaren arteko lotura handiagoa izatea da helburua.
- LHn, Innovamat matematika lantzeko proposamen konpetentzial eta manipulatioarekin ari dira lanean.
- DBHn, 3. eta 4. mailan curriculum anitzeko gelak ditu ikastolak, eta hizkuntza errefortzuko langilea lanaldi osora pasatu da. Bestalde, urte askotako eskaerari erantzunez, ordutegi jarraitua ezarri da, Hedatze proiektuaren bitartez.
- Gaur egun Pedagogia Batzordea egonkortua dago. Taldean egiten da lan, berrikuntza erreferenteak sortu dira eta berrikuntza arduradun bat dago.
- Tokiko Eskolatze Batzordea: etorkinen banaketa desorekatuari aurre egiteko proiektu pilotu bat jarri zen martxan. Horren bidez, 30 ikasle jaso dira ikastolan.

Ondoren, Gaskon Etxeberria Oiertzo Batxilergoko zuzendariak hartu du hitza, eta Oiertzori buruzko informazioa eman du:

- Ikasturte honetan lehen aldiz, Batxilab proiektua % 100ean burutu da (hiru erronkak ikasturte berean gauzatu dira)
- USE: ikasleen % 96k egin du azterketa eta % 100ek gainditu du. Oiertzon inoiz izan den kopururik altuena da.
- Euskal Olinpiadak antolatu dira lehenengoz, Haurtzaro eta Orereta ikastolen arteko ezagutza eta lotura lantzeko asmoz.
- Bi mailatan lau gela daude eta guztira 22 irakasle (inoizko irakasle gehien).
- LOMLOE Legea egokitzeko egin beharreko aldaketak prestatzen ari dira: batxilergoko modalitate berria (orokorra); gai-aldaketak (nahitaezkoetan aldaketak eta aukerazko batzuk desagertu egin dira); tutoretzako ordua txertatzea, batxilergoan lehen aldiz.

4.- Kilometroak 23 urteko ekintza planaren aurkezpena.

Naroa Perezek, Kilometroak 23ren koordinazio taldeko kideak, jaiaren antolaketaren inguruko azalpenak eman ditu.

Kilometroak 23ren ildo nagusiak eta etekinak zertan erabiliko diren azaldu ondoren, antolaketaren eta martxan jarri diren batzordeen berri eman du. Momentu honetan 200 pertsona inguru dabilta lantaldeetan, eta, horiez gain, badira boluntario puntualak ere.

Kilometroak 23ren urteko ekintza plana eta mugarri nagusiak ere aipatu ditu. Besteak beste, honako hauek: martxoan, *Batasunaren Bidean* giza kate erraldoia; maiatzean, *Darraizu, darraigu* herriko eta inguruko artistekin osatutako 12 orduko ikuskizun maratoia; apirilean, Landarbaso abesbatzak eta Euskal Kultur Erakundeak ondutako *"Adaxka Berriak" Zubiak Eraikiz* kantaldia, Hendaiaiko, Ziburuko eta Orereta ikastoletako haurren parte hartzearekin; maiatzean, "Erriola" abestiaren eta bideokliparen aurkezpena; uztailen, Euskal Herria mendiz mendi zeharkatzen duen Ur Muga musika-jaialdiak geldialdia egingo du gure herrian.

5.- Hezkuntza ereduaren inguruko proposamena.

Anartz Muxika Orereta Ikastolako zuzendari nagusiak egin du gai honen aurkezpena.

Historian atzera egin behar da bi ereduaren zergatia azaltzeko. 90eko hamarkadan dauka jatorria bi ereduaren ibilbideak. Kontzertazio legearen kontestuan, Hezkuntza Sailak ikastetxeei B eta D ereduak eskaintzeko gomendioa egiten zien. Ikastolek aukera horri heldu zioten, hartara gela gehiago finantzatzeko aukera izango zutela argudiatuta. Eta praktikan erabaki horrek, ikasle kopuruen gorabeherak egonagatik, egonkortasuna ekarri izan du gela kopuruetan, kalitatezko hezkuntza eskaintzan eta lanpostuetan.

Erabaki hori erabaki administratibotzat hartu zuen ikastolak, eta ereduak eredu Orereta Ikastolak hezkuntza proiektu bakarra izan du ikasle guztientzat.

2004 urte ingurutik aurrera, ikastetxe batzuek bi erduei eustearen onurak lausotuta ikusten dituzte, eta pixkanaka eredu bakarrerako bidea abiatzen dute.

Orereta Ikastolak hasierako hautu hari jarraitu izan dio gaur arte, euskalduntzea, normalizazioaren helburuak eta kalitatezko hezkuntza eskaintza lehenetsiz. Gaur egun, ordea, gurasoen artean zalantzak sortzen dira tarteka ereduaren inguruan. Gainera, garaiak aldatu dira eta egun ez dago beste ikastolarik B eredu administratiboan. Gainerako ikastetxeetan ere gutxi dira bi ereduak dituztenak. Horregatik, Orereta Ikastolan B eredu hori paperetan bakarrik egonik ere, egungo kontestu soziala kontuan hartuta, ikastolari kalteak ekar diezazkiokeela uste da.

Hala, Artekazkaritza Kontseiluak gaiaren garrantzia ikusita, ereduaren inguruko hausnarketa abiatu zuen eta hainbat bilera egin dira Hezkuntza Sailarekin. Azterketa horretatik ondorio garbi batzuk atera ziren:

B eredu administratiboa kenduz gero, gela asko galduko ditu ikastolak. Eta araudiak gela ugariren galera kasuan zera aurreikusten du: lehenengo 3. ikasturteetan, ikasturte bakoitzean gehienez gela bakarria galtzea; 4. ikasturtetik aurrera, berriz, une horretako ikasle-kopuruaren arabera, kolpetik galduko lirateke gainerako gelak guztiak.

Gauzak horrela hiru eszenatoki aztertu dira:

- 2 erduei eustea
- D eredura aldaketa egitea kolpetik, 2023-24 ikasturtean
- D eredura aldaketa progresiboa egitea

Ondoko taulan ikus daiteke aukera bakoitzeko gela-galera.

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Ereduei eutsita	-1	-1	-1	-1	-1
Kolpe bakarreko aldaketa	-1	-1	-1	-10	-2
Aldaketa progresiboa	-1	-1	-1	-5	-2

Aurreikuspen horiek kontuan hartuta, ikus daiteke aldaketa kolpetik egiteak egoera zailean jartzen duela ikastola –kudeatzeko zaila izango litzatekeen egoera batean–, finantzaketan jaitsiera eta lanpostuetan galera handiak ekarriko bailituzke.

Aldaketa progresiboa eginda ere, egoera zailak aurreikusten dira. Hala ere, Artezkaritza Kontseiluak pentsatzen du komeni dela horrela egitea, erakusteko -bai familiei, bai komunitate osoari- aldaketa abian dela.

Prozedurak argitu ondoren, Hezkuntza Sailak proposatu dio ikastolari aldaketa matrikulazio kanpaina honetan bertan abiatzea HH2ko geletan. Horregatik, Artezkaritza Kontseiluak eredu bakarrerako trantsizioa martxan jarri du matrikulazio kanpaina honetan bertan, urtero maila bat igoz, urte batzuen buruan, HHko eta LHko gela guztiak D eredura pasatzeko. DBHri dagokionez, asmoa da etapa osoa batera 2023-2024rako D eredura pasatzea.

Azalpenak eman ondoren, bozketa egin da. Hauxe da bazkideei bozkatzeko proposatutakoa:

“Jada martxan den trantsizio progresiboa berrestea, eta aldaketa ahalik eta azkarren eta ikastolaren intereserako onena den moduan egiteko eskumena ematea Artezkaritza Kontseiluari eta zuzendaritza-taldeari”.

Eraitza:

Bai:	78,05
Ez:	7,07
Zuri:	1,05
Baliogabe:	0

Beraz, onartuta geratu da hezkuntza ereduaren inguruko proposamena.

6.- 2021-2022 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, horrela badagokio. Emaizen aplikazioa.

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, 2021-2022 ikasturteko kontuak azaldu ditu. Hiru ataletan banatu ditu kontuen inguruko gaiak:

- 2021-22 ikasturteko kontuak azaltzea eta, egoki ikusiz gero, onartzea.
- Hezkuntza Legearen alderdi ekonomikoaz aritzea; bereziki, doakotasunaz.
- Hauek ikusita proposatzen diren tarifak azaldu eta bozkatzea.

Lehenengo Oiartzoren kontuak azaldu ditu:

Aurreko ekitaldiko galerak 202.558 €-koak ziren; 2021-22 ikasturtekoak, berriz, 114.833 €-koak izan ziren. Emaiza hobetzearen arrazoien artean:

- Ikasle gehiago izan ziren. 6 lineatik 7 lineara igaro zen Oiartzo, horrek sarrera igoerak dakartza, bai kuota gehiago sartzen direlako, bai gela gehigarri bati lotutako dirulaguntza erdietsi delako.
- Bestetik, Oiartzok 2021-22 ikasturtean dagoeneko indarrean du tarifak igotzeko 3 urteko plana, eta hori ere sarreretan nabari da.

Azpimarratu du galera horien arrazoia azpifinantzazioan dagoela, gastuen politika beste etapen berdina baita.

Orereta Ikastolako egoera finantzarioari dagokionez, gogoratu du adierazle oso egokiak eta egoera finantzario indartsua duela.

Orereta Ikastolan 2020-21ean galerak -135.439€-koak izan ziren, eta 2021-22an -57.626 €-koak. Emaiza hobekuntza hori bultzatu dutenak, besteak beste, hauek direla agertu du:

1. Hezkoop dirulaguntza ebazpena. Esmalteriako eraikinaren eraberritzeari lotuta dirulaguntzaren ebazpena iritsi da eta 60.000 €/urteko jasoko dira 2021-22an hasita 8 urtez. Dirulaguntza ongi etorria izango da, baina inbertsioa dirulaguntzaren bikoitza baino handiagoa izan zela ere gogoratu nahi izan du.
2. Oiartzoko galerak gutxitu egin dira (65.794 €), eta horrek eragina du Oreretako kontuetan ere.

Gaia aztertu ondoren, bozketa egin da:

"2021-2022 ekitaldiko kudeaketa soziala eta Urteko Kontuak onartzea, emaitza -57.626 €-ko galera izan delarik. Emaiza, bere osotasunean (-57.626 €), etorkizunera begira lortu daitezkeen emaitza positiboekin konpentsatuko den erreserba funts berezira eramatea."

Eraitza:

Bai:	85,38
Ez:	0
Zuri:	0,92
Baliogabe:	0,92

Beraz, kudeaketa soziala, urteko kontuak eta eraitzaren aplikazioa onartzen dira, proposaturiko eran.

7.- Tarifak berrikusteko proposamena eta, hala badagokio, onarpena.

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, lehenik azaldu du zein den Hezkuntza Sailak ikastolari egun ematen dion finantzazioa eta, bestalde, finantzatu gabeko kopuruak zeintzuk diren. Ia milioi bat euroko azpifinantzazioa dagoela jakinarazi du.

Etorkizunean finantzazio eta doakotasunaren inguruan dagoen informazioa zein den agertu du, momentuz gertatuko denaren inguruan informaziorik ez dagoela azpimarratuta. Doakotasuna guztion nahia baldin bada ere, oraingoz ametsa besterik ez dela argitzen borobildu du ideia.

Egoera horretan, tarifen inguruan hartu beharreko erabakiak epe luzerako ikuspegiarekin egitea ezinezkoa dela ondorioztatu du; hala ere, azken urteetan gertatu diren prezioen igoerak kontuan hartuta aldaketak egin beharraz aritu da. Hala, Artezkaritza Kontseiluak tarifen inguruko proposamen hau egin dio Batzar Nagusiari:

1. Kuota osagarria beste urtebetez izoztea eta igoerarik ez ezartzea, finantzazio igoerak baldin badatoz horri eragingo diotela iritzita.
2. Zerbitzuetako tarifei dagokienez:
 - Lehenengo eta behin, esan behar da tarifen inguruko erabakiak Artezkaritza Kontseiluarenak izanagatik Batzarrera ekarri nahi izan direla, berreste aldera.
 - 2021ean aurreikusita zegoen igoera ez zen aplikatu.
 - Gainera, bi urtean KPla %12 igo da, eta horren ondorioak pairatu ditu ikastolak.

Hori ikusita, gainontzeko tarifak igo beharra ikusten da. Ikasturte guztirako kontratatzen diren tarifen igoerari lotuta, ondoko proposamena aurkeztu da:

	<u>Jangela</u>	<u>Garraioa (2 bidaiak)</u>	<u>Garraioa (4 bidaiak)</u>	<u>Eskola Kirola</u>	<u>Txokoa</u>
<u>Igoera (%)</u>	6,7%	5,8%	6,4%	12,0%	6,1%

Egun ikastolak eskura duen informazioarekin hori da proposamena. Etorkizunean aldaketa nabarmena suposatuko lukeen informazioa iritsiko balitz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki hauek egokitu beharko dituela ere adierazi da.

Gaia aztertu ondoren, bozketan egin da:

Emaitza:

Bai:	64,56
Ez:	16,63
Zuri:	4,06
Baliogabe:	0,92

Beraz, lehenago aurkeztutako taulan proposaturiko tarifa edo kuota igoerak onartuzat ematen dira.

8.- Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kide berrien onarpena.

Itziar Navarro lehendakariak Artezkaritza Kontseiluan izango diren aldaketen berri eman du. Bost aldaketa egingo dira. Artezkaritza Kontseilua utziko dute: Eneritz Gurrutxagak eta Maider Gezalak (gurasoak); eta Leire Mañesek, Maitane Martinek eta Onintza Zabalak (langileak).

Horien lekuan beste bost lagun sartuko dira Artezkaritza Kontseiluaren taldera: Javier Bagües eta Izaskun Aldezabal (gurasoak); eta Mari Jose Iraola, Ainara Jacinto eta Imanol Mitxelena (langileak).

Lehendakariak azpimarratu du Artezkaritza Kontseilua osatzen duten guztiak ahaleginduko direla ikastolaren oraina kudeatzen eta etorkizuna bideratzen, ahalik eta txukunen.

Hala, hauxe izango litzateke Artezkaritza Kontseiluko talde berria eta bakoitzaren mandatuaren indarraldia:

Artezkaritza Kontseiluaren osaera eta indarraldia	
Itziar Navarro Pikabea (2024)	
Xabier Gorratxategi Zipitria (2026)	
Arantxa Iragorri Saizar (2024)	
Francisco Javier Bagües Bafaluy (2026)	
Ane Igarzabal San Sebastian (2024)	
Mertxe Arano Izquierdo (2024)	
Xabier Zabaleta Etxabe (2026)	
Lide Gabarain Torrecilla (2024)	
Izaskun Aldezabal Roteta (2026)	
Langileen ordezkariak	
TITULARRAK	ORDEZKOAK
Mari Jose Iraola Borges (2026)	Ainara Jacinto Etxenagusia
Iñaki Zapirain Retegui (2026)	Imanol Mitxelena Lizaso
Sara Aramendi Moreiro (2026)	Iker Goñi Ramirez
Lourdes Saez de Egilaz (2024)	Begoña Zuloaga Elicegui

Jarraian, Artezkaritza Kontseiluaren osaera berria onartzeko bozketa egin da.

Eraitza:

Bai:	81,98
Ez:	1,05
Zuri:	3,14
Baliogabe:	0

Beraz, Artezkaritza Kontseiluko kideen izendapena eta osaera berria onartzen da.

Bestalde, Zaintza Batzordeari dagokionez, aldaketa bakarra proposatu da: Maite Intziarte Jauregik hartuko du Itziar Bastarrika Unanueren lekua. Gainerako kideek Zaintza Batzordean jarraituko dute.

Beraz, hau izango litzateke Zaintza Batzordearen osaera berria eta beraien mandatu iraupena:

Titularrak
Ainhoa Arruabarrena Elorza (2026)
Agurne Etxebeste Huarte (2026)
Arantxa Iraola Alkorta (2026)
Maite Intziarte Jauregi (langile ordezkaria) (2026)

Jarraian, Zaintza Batzordearen osaera berria onartzeko bozketa egin da.

Eraitza:

Bai:	82,11
Ez:	2,09
Zuri:	1,96
Baliogabe:	0

Beraz, Zaintza Batzordearen izendapenak eta osaera berria onartzen dira.

9.- Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia.

Itziar Navarro Lehendakariak egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia azaldu du.

Lehenik, azken hilabeteetan egindakoen errepaso egin du. Besteak beste, honako hauek aipatu ditu:

- Ikasturte honetan, 2022-2026 Plan Estrategikoan jasotakoak gauzatzen hasi gara, Urteko Kudeaketa Planean zehaztutako ekintzen bidez.
- Bide orri digitalean ere aurrera egin dugu: langileen ordenagailuak berritu ditugu, kudeaketa akademikoan lagunduko digun softwarea aldatu dugu, Alexia softwarea erabiltzetik Inika erabiltzera igarota.

- Zerbitzuetan, gure proiektu pedagogikoaren ezaugarriak txertatzeko ahaleginean, Linoko jangela berri da, ikasleak subjektu aktibo izan daitezten.
- Jasangarritasunari dagokionez, ikastola BERDEA marrazten jarraitu da. Gainera, jasangarritasunaren kontzeptua bere osotasunean hartzen denez, ikastolaren balioekin eta ezaugarriekin bat egiten duten erakunde eta egitasmoekin elkarlanean jardun gara: Goiener, Inika, Gureak eta Errigora.
- Elkarlan hori beste ikastola batzuekin ere badugu. Horren adibide da *Zubiak Eraikiz* egitasmoa, Hendaia, Ziburu, Biriatu eta Urruñako ikastolekin hasi zena. Aurten, Kilometroak-ek ematen digun aukera baliatuz, COVIDak etendako ibilbideari ekingo diogu berriz. Hainbat ekintza elkarrekin egingo dira, eta Kilometroak-etik aterako den etekin ekonomikoaren zati bat egitasmoa indartzera bideratuko da.
- Azken urteetan indar handia jarri da ikastolaren komunitatea saretu eta familien parte hartzea indartu nahian. Horren erakusle dira, besteak beste, Jarraipen Batzordeak (irakasleen eta guraso ordezkarien arteko harremanak hurbiltzeko asmoz sortuak) eta, Gipuzkoako Bazkondeak finantzatuta, aditu baten laguntzarekin parte-hartzea sustatzeko egindako lanketa.
- Gure izaera publiko herritarra indartzen jarraitu da. Ikasturte honetan abian jarritako ekimen berriek (Sorgingarra eta Mari Domingiren Errepublika Magikoa) agerian jarri dute berriz ere ikastolak herriarekiko duen konpromisoa. Bestalde, 25 urteren ondoren, amaiera eman diogu Iñude eta Artzaien desfileari.

Egungo egoeraren errepasoa egin ondoren, aurrera begirakoak aletu ditu:

Gure jarduna baldintzatzen duen lege esparrua aldatzera doa, eta ziurgabetasun handiko garaiak bizi ditugu. Hezkuntza Lege berriak –hasiera batean euskal hezkuntza sistema propio eta berri bat egituratzeko aukera bezala ikusten zenak–, zalantza asko sorrarazten dizkigu une honetan. Kezka badago, oraindik ere ez baita argi ikusten ikastolen izaera nola jasoko den lege berrian; ez dago euskararen inguruko kontsentsurik eta ez dago informaziorik ikastetxeen autonomiari buruz...

Gainera, Legea onartu aurretik hartzen ari diren zenbait erabakik ere gure oraina eta batez ere etorkizuna baldintzatuko dute. Besteak beste, finantzaketaren inguruan eta ikasle zaugarrien banaketaren inguruan hartutako neurriek ikastolen hurrengo urteetako jardunean eragin nabarmena izango dute.

Zurrumbilo horretan guztian, demografiaren bilakaerak eta, zehazki, jaiotza-tasaren beherakadak ere badu zeresana. Gurean, bereziki kezkagarriak dira datuak: 2009-2010 ikasturtetik 2018-2019 ikasturtera, 2 urteko haurrak batez beste 360 baziren; 2019-2020an 300etik behera izan ziren eta azken bi urteetan, hurbilago gaude 200etik 300etik baino (210 inguruan). Beherakada hori are nabarmenagoa da ikastolako familien iturri nagusi izan diren auzoetan, esate baterako, erdigunean edo Fanderian. Aurtengo emaitzak bilakaera horren isla dira: 43 ikasle berri dira datorren ikasturterako 2 urteko geletan, eta horrek, oso epe laburrera, ikastola bi lerrokoa bihurtuko du.

Beraz, ezin esan etorkizuna oparoa izango denik. Gogor egin beharko da lan familiak ikastolara etortzeko eta beste modu batera eta beste auzo eta kolektibo batzuetara ere mugitu beharra izango da, ikastola zer den azaltzera.

Lehendakariak adierazi duenez: "Ez dugu ezkorrak izan nahi, baina argi dugu ez direla garai errazak. Gogor egin beharko dugu lan, gure buruarekin zorrotzak izanez eta beti hobetzeko ideia berriak bilatuz. Guztion da ikastolaren etorkizunaren ardura: bakoitza bere tokitik eta bere arduratik, saiatu behar du orain dela 60 urte familia ameslari haiek sortu zuten egitasmoari segida ematen".

Bukatzeko, eskerrak eman dizkie ikastolako profesionalei, batzordeetan eta lantaldeetan lanean aritzen diren gurasoei, ikastolan konfiantza jarri duten familiei eta batzarrera hurbildutako bazkideei.

10.- Galde-eskeak.

Ez da galde-eskerik egon.




Iraitz Burlada Monedero
NAN: 72.508.916J
Bazkide aukeratua



Leire Oliveri Pérez
NAN: 44.164.504L
Bazkide aukeratua



Xabier Zabaleta Etxabe
NAN: 34.093.984A
Idazkaria



Itziar Navarro Pikabea
NAN: 34.099.745Z
Lehendakaria

Orereta-Errenterian, 2023ko otsailaren 27an